

◦ ASTERO GAIA ◦

Zoologikoak



Kontserbazio gune ala negozio?

Hartz eme bat hilik agertu zen apirilean Valladoliden, Valwo zoologikotik ihes egin ostean. Ikuskizunetan animaliak erabiltzea debekatu da hainbat zootan, sufritzen dituzten ondorio txarrak ikusita. Eta Europako Batzordeak Espainiako Gobernuari espedientea ireki dio aurren, Zoologikoen Zuzendaraua ez betetzeagatik. Hori guztia ikusita, Euskal Herriko zooetan legea eta baldintza duinak betetzen al diren eta gaitibu egoteak animaliei nola eragiten dien jakin nahi izan dugu.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: Dani Blanco

GURE ZOOEN EGOERAZ hitz egin aurretik, komeni da leku itxian egoteak animalien duen eragina ikustea. Ikerketa zientifiko ugari arabera (Ellis doktorea, 1985; Thomson & Geraci, 1986; Pilleri, 1987; Small eta Debaster, 1995; Troisi, 1997; Mass, 2000; beste askoren artean), gaitibualdiak estres fisiko nahiz mentala sortzen die animaliei, euren arteko eta pertsonenganako agresibitatea areagotzen die eta aspertzea, bizitza laburtzea eta kume direnean errazago hiltzea eragiten die. 1992an, gaitibualdiaren ondorioz sortutako neurosiak eragin ditzakeen jarrera anomaloek zookosi izena ipini zitzaion: hala nola, luma edo ileetatik tira egitea, janariarekin arazoak izatea, oihuka aritzea, kumeak akabatu edo titia kentzea, erasotzea, paretak gorotzez zikintzea, estimuluei jaramonik egin gabe lurtean botata egotea, sexualki hiperaktibo izatea edota euren burua mintzea –paretaren aurka jotzea, adibidez– dira zookosiaren sintomak.

Sistematikoki errepikatzen duten jarrera antinaturalari berriz, estereotipia deitzen zaio: besteak beste, ibilbide bera errepikatuz gora eta behera ibiltzea, zirkuluan bueltaka aritzea, barroteak edo paretak behin eta berriz miazkatu edo hozkatzea, lepoa etengabe biratzea, kulunkatzea edota behin eta berriz oka egitea.

Beldurrezko eszenak?

Beldurrezko eszenak diruditen arren, oraindik ere uste baino ohikoagoak omen dira hainbat zoologikotan. Zoo Check animaliak babesteko elkarte ingelesak 2000. urtean egindako ikerke-

taren arabera, Britainia Handiko zoo eta safari park handietako animalien %80ak estereotipia kasuren bat zuen. Infozoos animalientzako baldintza egokien alde lan egiten duen Espainiako Estatuko elkarteak da eta bertako koordinatzaile Marta Gumàren esanetan, batzuetan zooko instalazioak egokiak irudituko zaizkigu, handiak eta higienikoak, baina animalia mugitu gabe ikusiko dugu: “Animaliak, egoera basatian, denbora gehiena jana bilatzen ematen du, eta zoologiko askotan egunean hirutan mutur-

“Animaliak, egoera basatian, denbora gehiena jana bilatzen ematen du, eta zoo askotan egunean hirutan muturren aurrean jartzen diete jana; motibaziorik gabe, animaliak aspertuta emango du eguna”

MARTA GUMÀ, INFOZOOS

ren aurrean jartzen diete jana; animalia horrek motibaziorik ez badu, aspertuta emango du eguna”. Javier Elia Arguedasko (Nafarroa) Senda Viva parkeko animalien arduradun eta biologo-arentzat, ordea, animaliak ez dira aspertzen, hori “animaliari gizakion ezaugarriak ematea litzateke, aspertzearen kontzeptua ez baita animalien munduan existitzen. Estresatu ere ez dira egiten, agian obrekin-eta bai, edota leku berri

batera eramaterakoan, baina behin-behineko kontua da eta ez da ezer gertatzen, bizitzaren parte da, guri gerta dakigukeen bezala”.

Aldiz, Karrantzan (Bizkaia) dagoen Karpin Abenturako arduradun eta biologo Pedro Abadek dio euren jaso izan dituztela etxean domestikatu izateagatik jarrera anomaloekin iritsi diren animaliak: “Bi makako emeen kasua nabarmena da. Marokoko Atlasetik hilabete gutxirekin amaren magaletik kendu eta gizakiekin bizitzera behartu dituzte. Beraz, ez dakite ez makakoek bezala jokatzeko, ez gizakiek bezala, eta gurera iristen direnean, makako gehiagorekin komunikatzeari egin behar diote aurre, baina ez dute elkar ulertzen. Makako berriarentzat egoera hori psikologikoki oso dramatiko da, ez du jokatzeko

Sei hartz arre siriar (desagertzeko arriskuan dagoen espeziea) daukate Nafarroako Senda Viva parkean.



Hegaztiekin ikuskizuna egiten dute Senda Vivan, harrapakin bezala panpin bat erabiliz (ezkerrean). Eskuinean: Igeldoko (Donostia) parkeko mini-zooa jada itxi dute, baina animaliak haurrak garraiatzeko erabiltzen dituzte oraindik, entretenimendu moduan. Ondoan, tximinoak eta ostrukak, Karpin Abenturan ikus daitezkeen animaliak.

naturan hezia izan balitz bezala eta egokitzapena luzea izan ohi da. Gainera, makako zaharrek berria akabatzea ere gerta daiteke. Gure kasuan, emeatako batek lau hilabeteko egokitzapena behar izan du, baina bestearekin sei hilabete daramatzagu eta aldi baterako gainontzekoekin elkartzea ere ez dugu lortu oraindik”.

Gutxieneko baldintzak

Portaera antinaturalak saihesteko, animaliak espazio nahikoa izatea, segurtasuna, elikadura, osasuna eta naturalizazioa –“kaiola” habitat naturalaren ahalik eta antzekoena izatea– kon-tuan hartzea beharrezkoa dela gogoratu du Gumàk. Halaber, funtsezkoa da programa aberasgarriak garatzea: esaterako, animalia-ri janaria ezkututzea, ingurua noizbehinka aldatzea edo jolas eta tresna berriak sartzea, asper-tu ez dadin. Eta animalien eta pertsonen arteko kontaktua ere galarazi beharko litzatekeela –eta ez dela egiten– gogoratu du Infozooseko koordinatzaileak, gaixotasunik ez kutsatzeko –zoonosi izenez ezagutzen dena–.


Gurelur talde ekologistako Antonio Muni-llak argi du: animaliek euren habitatean egon


behar dute, naturan, eta natura da kontserbatu behar dena, animaliak bertan mantentzeko; zoologikoen aurka dago guztiz. Beste hainba-tek, ordea, instalakuntza horiek defendatzen ditu, funtzio baikorrak dituelako: nagusienak, animaliei buruz jendea kontzientziatu eta hez-tea, eta desagertzeko arriskuan dauden anima-liak berreskuratzea inbestigazioaren bidez eta ugalketa ahalbidetuz. Izan ere, biodibertsita-tearen galera gero eta handiagoa da eta galbi-dean dauden animalien gordeleku eta ugalketa-toki bilakatu dira zoologiko eta akuarioak –65 espezie zoologikoetan baino ez dira bizi–.

Aspalditik datorren eztabaida horren erdian, ikuspegi interesgarria du Infozoosek: zoologiko-ak dirauten bitartean, gutxienez legea bete deza-ten lortzea, animalia biltegi huts zireneko garaieen filosofia aldaraztea eta animalientzako baldintza duinak eskatzea, benetako helburua kontserbazioa izan dadin, eta ez negoziua.

Legearen zirrikituak, salaketen ihesbide

Espainiako Estatuan nukleo zoologikoen gai-neko eskuduntza erkidegoena denez, 2005ean Infozoosek eskutitza bidali zuen gobernu





NEREA SAINZ DE MURIETA

NEREA SAINZ DE MURIETA

autonomikoetara, bertako instalakuntzei urtero egin behar zaizkien ikuskapenak betetzen al dituzten eta kontrolak nola egiten dituzten galdetuz: Eusko Jaurlaritzak ez zuen erantzun eta Nafarroako Gobernuak idatzi zien zoologiko bat onartua dagoela (Senda Viva), baina administrazio-isiltasuna deitzen den prozeduragatik; hots, zooak irekitzeko eskaera egin zuenetik sei hilabetera administrazioak ez zuenez ez baiezkorik ez ezezkorik eman, automatikoki onartua geratu zen, inongo ikuskapenik gabe. Horrez gain, Espainiako zortzi zoologikoren ikerketa egin zuen Infozoosek eta egoera “penagarria” zela ondorioztatu. Europako Batzordera jo, salaketa ipini eta Espainiako Gobernuari espedientea ireki zitzaion, Zoonen Zuzentaraua ez betetzeagatik.


Zuzentaraua 1999an atera zuen Europako Batzordeak, zooak biodibertsitatearen kontserbazioa mantentzera behartuz, baina Espainiak 2003ra arte ez zuen lege bihurtu. Kontserbazioa, heziketa, segurtasuna, animalia-ongizitatea eta ikerketa zientifikoa dira lege honen oinarri, baina gabeziak dituela ikusten du Infozoosek, ez baitu betebeharrak zehatzik eska-

Zoon funtzio baikor
nagusiak: animaliei buruz
jendea heztea eta
desagertzeko arriskuan
dauden animaliak
berreskuratzea, ugalketa
eta ikerketaren bidez

tzen: “Animaliak baldintza egokietan egon behar duela diote, baina zeintzuk dira baldintza horiek? Zenbat metro izan behar ditu kaiolak? Ez dago estandarrik; oso subjektiboa da eta parkea ikuskatuko duen al baitariaren arabera-koa izango da erabakia”, dio elkarteko koordinatzaileak. Zirrikitu horiek direla eta, salaketak aurrera ateratzea zaila da. Baina Gumàren esanetan, okerrera da Espainiako zoologiko gehienak gutxieneko horietara ere ez direla iristen: “Hasteko, askotan galtzeko arriskuan ez dauden animaliak dituzte, zein helbururekin? Ez diogu zentzurik ikusten. Alderdi ludikoa asko lantzen da, jendearen aisiari begira, baina kontserbazioa eta heziketa arloak ez dituzte kontuan hartzen eta sarri negozioa baino ez da”. Animalien eta gizakien arteko kontaktuaren debekua ere ez dela betetzen dio eta urtero egin beharko liratekeen ikuskapenak ez direla egiten.

Guk Euskal Herriko bi zoologiko nagusiei galdetu diegu eta ikuskapenak egiten dizkietela ziurtatu digute: Senda Vivaren kasuan, Osasun Sailak euren animalien kontrol handia daramala diote eta Karpin Abenturakoek, administrazioaren bisitak jasotzen dituztela. “Nukleo zoologi-

Angorako ahuntzak, larreko txakurtxoak, mapatxe amerikarrak, mangosta doratuak, basurde hegoamerikarrak, llamak, emu australiarrek, zeri vietnamdarrek, mufloiak, oreinak, Himalaiako faisaiak... dituzte Senda Vivan. Irudietan, ezker-eskuin: tximinoak, lehoiak, itsas-igaraba (birpopulazte programen baitan), urtxintxa eta zebra bi.





PILI ERAUNZETAMURGI.

Loroak bizikletan eta delfinak surfean

ANIMALIEKIN egindako ikuskizunei buruz ez dago lege orokorrik eta askotan udalen kontua izan ohi dela dio Marta Gumà Infozooseko koordinatzaileak; Bartzelonan, esaterako, debekaturik daude, zirkoetan nahiz zoo eta akuarioetan. Gumàren arabera, loroak uztaiak jasotzea edo foka pilotatxoarekin ibiltzea jarrera antinaturalak dira eta ikuspegi anakronikoa ematen zaio ikusleari: “Animaliarenganako errespetua nahi dugu eta berau barregarri utziz ezin da hori lortu”. Horrez gain, halako ikuskizunek animalien estresa eta neurosiak sor ditzakeela diote hainbat ikerketek. Izurdeen *showak*, ikuskizun ohikoenak zoo eta akuarioetan, debeka-

tuak daude jada atzerriko leku askotan. Izan ere, zaintzaileei egindako erasoak ugari izan dira eta harrapakinak aurkitzeko duten sistema kaltetu egiten zaie igerilekuan, uhinek errebotatu egiten baitute paretan eta izurdeari ezinegona eta ondoeza sortzen dizkio. Ikuskizunak iraun bitartean musikak duen bolumena ere ez da komenigarriena izaten. Nafarroako Senda Vivan egiten dituzte ikuskizunak, hegazti harrapariekin, baina ez dela ezer antinaturala eta euren habitatean egiten dutena erakusten dutela –jana edota panpina faltsuak jartzen dizkiete hegaztiei, hegan har ditzaten– azpimarratu nahi izan du Javier Elia parkeko biologoak.

ko pribatu askok, ordea –gaineratu du Karpineko arduradunak–, ez dute inongo kontrolik eta animaliak ez daude egoera onean: esaterako, animalia domestiko moduan tximuak, tigreak, lehoiak, jaguarrak edo pumak etxean dituztenak”.

Senda Viva, argi-ilunak

120 hektareatan, 80 espezieko 500 animalia dituzte Senda Vivan. Jolas-parkea eta zoologikoa uztartzen ditu eta nahiko berria da, lau urte baino ez baitaramatza irekita. Asmo turistikoengatik, Erriberara jendea erakartzeko jaito zen ekimena eta egun, hamaika animalia zaintzaile eta albitari bat dituzte. Bertan dauden animalien galdetuta, irizpidea aniztasuna dela dio Javier Elia animalien arduradunak, “hori baita jendea erakartzen duena”. Hala ere, tartean galtzeko arriskuan dauden espezieak ere badituzte: orkatzak, sei hartz arre siriari eta Europako birpopulatuze programen baitan, bi itsas-igaraba, ugaldu eta kumeak izan ditzaten. Zooko ugalketak kontrolpean dituztela kontatu digu Eliak, nahi dutenean elkartzen baitituzte espezie bereko arra eta emea, eta batzuetan, inplanteak jartzen dizkiete emeei, obulatu ez dezaten.

Alde onak ikusi dizkiogu Senda Vivari: erre-kuperazio zentroetatik jasotako animaliak dituzte (dortokak, orkatzak, zikoinak...) eta oro har

“Hainbatek ez du gustuko hegoina falta zaion zapelatza ikustea, baina espezie hori bizitzen ari den errealtatearen isla gordina da”

PEDRO ABAD, KARPIN ABENTURA

nahiko instalazio naturalak dirudite, “ideia ez delako izan instalakuntzak egitea, mendi zati bat hartu eta ixtea baizik. Nahiko parke berria denez, filosofia berriarekin eraiki zen –azaldu du Elia biologoak–. Madrilgo parkea, esaterako, asfalto gainean egina dago, eta jada ez ditu animaliak hor mantendu nahi”. Aberasgarritasunari ere garrantzia ematen diote: janaria ezkututzen dute, tximinociei igerilekua jartzen diete arrainekin, arrantza egin dezaten, espezie desberdinak elkartzen dituzte, hartzei enborra jartzen

diete eztiarekin, jolasteko... Eta segurtasuna handia da: kanguruek adibidez 2,40 metroko hesia dute kanpoaldera, saltatu ez dezaten, eta lehoi, tigre, hartz eta otsoen hesiak, animalia arriskutsuak izanik, oso altuak dira, elektrifikatuak goialdean. Gainera, zooa irekia ez dagoenetan, baserriko animaliak inguruko zelaietan askatzen dituzte. “AIZA Zoo eta Akuarioen Elkarte Iberiarraren baitan gaude eta animalien baldintzei buruz dituzten arauak betetzen ditugu”.

Beste hainbat gauza, ordea, ez dira hain positiboak: tigre eta lehoien kaiolak txiki samarrak dira eta aspertuta dirudite, nahiz eta Eliak esan kanpoan jana behar dutelako egiten dutela korri, “bestela botata egotea atsegin dute; munduko animaliarik nagiena da lehoia”. Baina ona al da harrapakinaren atzetik korri egin behar izatearen sena ezabatzea? Urtxintxaren kaiolan ere urtxintxa asko eta leku gutxi zegoela ikusi dugu eta jendaurrean antolatzen dituzten ikuskizunerako dauzkaten hegazti harrapariak lotuta daude. Biologoaren arabera, harrapariak jana lortzeko baino ez dute hegan egiten eta sarean edukitzea baino hobea da lotuta izatea. Halaber, ikuskizunean parte hartzen duten zikoina, iparkatamotza eta koatia kaiola txikitan dauzkatala ikusteak harritu gaitu. Horregatik galdetuta,

Euskal zookak

Erreportajeaz aztertutako zoez gain, badira Euskal Herrian aipatzea merezi duten beste hainbat: hala nola, Lapurdin, Hegoamerikako hazienda irudikatzen duen Eldora parkea (Bidarte), Etxola animalien parkea (Sara), eta harrapariak dituen Gazteluko falkoneria (Bidaxune); eta Araban, Los Molinos ornitologia parkea (Biasteri).

euren etxea Madrilen dutela erantzun du Eliak, eta denboraldia iraun bitartean baino ez dituztela Nafarroan. Azkenik, arriskutsuak ez diren beste animalia gehienekin oso erraza da kontaktua eta publikoak normalean ukitu egiten dituela esan digu arduradunak.

Karpin, eredu

Karpin Abenturak hamabi urte daramatza funtzionatzen eta eredutzat dute denek, zoologikotik harago joatea baitu erronka. 200 hektareatan, 55 espezie dituzte, merkataritza ilegaletik –ikusitako koadroa– eta errekupeazio zentroetatik jasoak edota jendeak etxean izan ostean abandonatuak. Horiei bizitokia emanez eta publikoki erakutsiz, jendea kontzientziatzea da asmoa, animalia basatiak domestiko izateagatik edo ehiza ilegalegatik sufritzen dutenaz ohartarazteko. Adibidez, errekupeazio zentroetatik ekarritako orkatzen kasua azaltzen diote publikoari: basoan bakarrik ikusi eta jende askok orkatz eta orein kumeak etxera eramaten ditu, abandonatuta daudelakotan, baina orkatz amak kumea deskantsatzen uztea normala da. Jendeak abandonatutako dorken saturazioa dagoela ere adierazi digu Pedro Abad Karpineko arduradunak eta iguanen, paumen edo mapatxeen kasua antzekoa da. “Euren habitatetik hartu, modu txarrean garraiatu eta herrialde aberatsetara ekarritako milaka animaliarekin akabatzen da”, dio Abadek. “Izugarrizko arazoa da, oso tristea, eta jendeari ikusarazi nahi diogu mota horretako animalia bat etxean izateko benetako beharrik ez duela”.

Ehiza ilegalaren ondorioz errekupeazio zentroan bukatu duten hegazti harrapariak ere badituzte: zauri sendaezinak dituzte, aske bizitzea galarazten dietenak. “Hainbatek ez du gustuko hegoa falta zaion zapelatza ikustea, eta ados

Merkatu beltzeko produktu

“Animalia basatiak maskota moduan izateko eskaririk ez balego, ez legoke trafiko ilegalik. Oinarrizko arazoa hori da, animalia basatiak maskota izateko moda eta kapritxoa”, dio Pedro Abad biologoak. Bere esanetan, animalia horiek euren lekuetatik desagertzen eta herrialde aberatsetan milaka eta milaka akabatzen ari dira, denak hartzeko lekurik ez dagoelako. Gehienetan, heriotza dute patu, izan herrialde batetik besterako garraio txarrean, izan helmuga duten herrialdeetan. Merkatu legalak ere kontrol handiagoa beharko lukeela uste du Abadek: “Animalia-dendetan mugak jarri beharko lituzke administrazioak, jendeari ez baitzaio erosten duenaz informatzen. Kumeak saltzen zaizkio, eta hazitakoan halako animalia etxean ezin duela izan konturatzen denean, jabeak abandonatu egiten du”.

nago agian ez dela politena, baina espezie hori bizitzen ari den errealitatearen isla gordina da”. Esplotazio negozioetatik hartutako kumeak –enpresa itxi ostean nora joanik izan ez duten animaliak– ere ikus daitezke Karpinen, ostrukak eta emuak kasu.

Bestalde, programa abersagarrien alde daude, parkeak dinamikoak izan behar duela eta instalakuntzak egokituz eta birmoldatuz joan behar dutela defendatzen baitute. Eta animaliek jendearekin ahalik eta kontaktu fisiko eta harreman gutxien izan dezaten saiatzeko dira, “eurentzako ona ez dela pentsatzen dugulako eta bisitarien ez diegulako irudi okerrik

eman nahi, filmetan iguana protagonistaren sorbaldan ikusi arren errealitatean ez delako hala gertatzen”. Horregatik, ikuskizunik ez dute antolatzen Karpinen.

Euskal Herriko instalazio handienek, beraz, filosofia hezitzailearekin egiten dute bat. Baina Marta Gumàren arabera, atzerrian denetik aurki daiteke, eta egoera okerrenetakoa Italian eta Espainian dago. “Gainera, Espainian erki-dego bakoitza bere kasa doa eta presioa eginez gero baino ez dira mugitzen; presio eginez lortu genuen Almendralejoko (Extremadura) zooa edo Gaztela Mantxako Koki Granja ixtea, beldurgarria baitzen animaliak nola zituzten ikustea”.

Filosofia aldaketa lortzeko, lehenengo urratsa jendea bera kontzientziatzea dela argi du Gumàk: “Jendea ez da ohartzen, ‘begira zein pozik dagoen gorila kulunkatzen!’, diote, aurpegia kristalean itsatsita, kolpetxoak emanez... Dibertitzeko asmoz doaz zoorra, besterik ez, baina horren errua zook beraiek dute, ez dutelako heziketa lanik egiten”. ■

VII. JARDUNALDIAK EUSKARA ELKARTEAK IBILIAN
AZAROAK 23 MIRAMON PARKE TEKNOLOGIKOA
www.e2ibilian.org

Topagunea
e2i VII JARDUN ALDIK
euskara elkarteak ibilian

SARBILEK
LARRITZALDEK
FAGOR
gertu